

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

#### **Gasteizko lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan energia eta ura aurrezteko diru-laguntzen deialdia**

##### **1. Deialdiaren esparrua**

Gasteizko Udalak Europako Euronet 50/50 ekimeneko esperientzia pilotu bat garatu nahi du, energia eta ura aurrezteko eta erabilera eraginkorragoak sustatzeko.

50/50 ekimena izeneko proiektuaren helburuak honako hauek dira: ikastetxeetan energia aurrezteko, erabilera eraginkorragoak sustatzea eta berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea, ikasleen, irakasleen eta hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten gainerako eragileen kontzientzia-eraketaren eta partaidetzaren bidez. Energia elektrikoari, kontsumo- eta aurrezpen-ohiturei eta energia-eraginkortasunari lotutako gaiak jorratzen dira, bai eta, besteak beste, uraren kudeaketa eta erregai fosilen erabileraren ondorioak ere.

Proiektuak ikastetxe parte-hartzaileen konpromisoa eta motibazioa saritzen ditu. Hain zuzen, ikastetxe bakoitzak lortutako aurrezki ekonomikoen ehuneko 50 bere instalazioetan hobekuntzak egiteko erabiltzea proposatzen du, energia-eraginkortasuna handitzeko.

Eskaeretan aurkeztutako proiektuak edota jarduerak egiteko aurrezki ekonomikoen gainerako ehuneko 50a erabiliko dute ikastetxe parte-hartzaileek.

Parte hartzen duten ikastetxeek aurrezki ekonomikoen gainerako ehuneko 50aren helburua askatasunez erabaki ahal izango dute.

Deialdia lehen hezkuntzako ikastetxe publikoentzat da, baldin eta Gasteizko Udala haietako mantentze-lanaz eta energiaren eta uraren kudeaketaz arduratzen bada.

##### **2. Deialdiaren xedea**

Oinarri hauen bidez, Gasteizko udalerriko lehen hezkuntzako ikastetxe publikotan energia eta edateko ura aurrezteko eta erabilera eraginkorragoak sustatzeko diru-laguntzak arautu nahi dira, Europako Euronet 50/50 ekimena oinarri hartuta.

Honako hau hartu behar da kontuan:

– Energia aurrezteko: elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen kontsumoa txikitzea, neurketa-unitateetan.

– Edateko ura aurrezteko: udal-sareko edateko uraren kontsumoa txikitzea, neurketa-unitateetan.

– Ikastetxe publikoak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek, toki-korporazioek kudeatutako ikastetxeak.

Kasu guztietan, ematen diren laguntzek betebeharrak hainak dira: nahitaezkoa izango da laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonak eta erakundeak eskakizunetan adierazitako proiektuak gauzatzeko eta/edo jarduerak egiteko eta/edo helburuak lortzeko, baita laguntzak emateko akordioan zehazten diren betebeharrak materialak eta formalak betetzea ere, Diru-laguntzei

buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Gasteizko Udaleko Diru-laguntzen udal-ordenantzaren arabera.

Eskaera egiten duten erakundeek ezin izango dute proiektu bat baino gehiago aurkeztu deialdi guztietan.

### **3. Erakunde hartzaileak eta diru-laguntza jaso ahal izateko eskakizunak**

Gasteizko udal-barrutian dauden lehen hezkuntzako hiru ikastetxek jasoko dituzte diru-laguntzak.

Ikastetxe onuradunen bi modalitate ezartzen dira:

– Aurreko ekitaldiren batean programan parte hartu duten ikastetxeak: dirulaguntzen onuradun izateko, Gasteizko Udalak bultzatzen duen 50/50 aurrezte-programarako beren atxikimendua berritu, ikastetxeko energia-ekipoa mantendu eta programak eskatzen dituen gainerako betekizunak bete behar dituzte ikastetxe publiko horiek.

– Programan lehenengo aldiz izena eman duten ikastetxeak: diru-laguntzak jaso ahal izateko, ikastetxe publikoek ikastetxeko Energia Taldea sortu eta gainerako eskakizunak bete beharko dituzte.

Ikastetxe bakoitzeko Energia Taldea Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko eta ikastetxe horren eskola-komunitateko ordezkariak osatuko dute.

Energia Taldeak aurrezpen-neurrien ezarpenaren eta lortutako emaitzen bilakaeraren jarraipena egingo du, eta aurrezpen-helburuak lortzeko erabakirik egokienak proposatuko ditu.

Ikastetxeek diru-laguntzen eskabideak aurkeztu ondoren, Gasteizko Udalak beharrezko jarduketak egingo ditu, lehenago aipatutako eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak biltzeko eta alderatzeko.

### **4. Produktuaren araberako aurrezki garbia eta aurrezki garbi orokorra**

Gutxiago edo gehiago kontsumitzen dela jakiteko, betearazpen-aldiko benetako kontsumoaren eta erreferentziako kontsumoaren arteko aldea kalkulatu da, bi kasuetan neurketa-unitateetan, eta, hala badagokio, alde aurretik neurri estandarrean adierazita.

Produktu-mota bakoitzaren (elektrizitatea, ura eta gasa) erreferentziako kontsumoa zehazteko, aurreko betearazpen-aldi berdinetako (maiatzaren 1etik eta hurrengo urteko apirilaren 30a bitartean) benetako kontsumoen historiak hartuko dira kontuan; gutxienez, urte bateko datuak erabiliko dira, eta, gehienez, hiru urteetakoak, baita beste zuzenketa-faktore batzuk ere.

Diru-laguntza kalkulatzeko, alde positiboa (kontsumo txikiagoa) edo alde negatiboa (kontsumo handiagoa) biderkatu egin behar da hornitzaileak betearazpen-aldian produktuan aplikatutako prezio unitarioen batezbesteko aritmetikoaz. Kalkulu horren emaitza produktuaren aurrezki garbi positiboa edo negatiboa izango da.

Aurrezki garbi orokorra aurkeztutako proiektuan sartu diren produktu guztien aurrezki garbien batura da. Aurrezki garbi orokorraren emaitza positiboa edo negatiboa izan daiteke. Diru-laguntzaren zenbatekoa aurrezki garbi orokor positiboaren emaitzan oinarrituko da; hain zuzen, balio horren ehuneko 50 izango da.

Aurrezki garbi orokorraren ehuneko 50 ikastetxeen instalazioetan hobekuntzak egiteko erabiliko da, betiere energia-eraginkortasuna hobetze aldera. Eskumeneko udal-zerbitzuek egingo dituzte hobekuntza horiek.

### **5. Laguntza teknikoa**

Aurreko ikasturteren batean dirulaguntzaren onuradun izan diren ikastetxeen kasuan, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak laguntza teknikoa emango die parte hartzen duten ikastetxeei

50/50 proiektuaren jarraipena egiteko, zenbat aurreztu duten kalkulatzeko eta proiektuari buruzko zalantzak argitzeko.

Dirulaguntza lehenengo aldiz jasotzen duten ikastetxeen kasuan, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak laguntza tekniko emango die parte hartzen duten ikastetxeei 50/50 proiektua garatzeko, haren jarraipena egiteko, energia-ekipoaren funtzionamendurako eta energiari buruzko auditoretzak egiteko, baita proiektuari buruzko zalantzak argitzeko ere.

#### **6. Betearazpen-aldia**

Proiektua 2019-2020 ikasturtean gauzatuko da, eta, lortutako aurrezkiak kalkulatzeko, 2019ko maiatzaren 1etik 2020ko apirilaren 30era bitarteko aldia hartuko da aintzat.

#### **7. Aurrekontu-esleipena eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 2019/0110.1722.480.03 partidaren (ikastetxeetako energia-aurrezpenerako diru-laguntza) 12.000,00 euroko zuzkidura dago eta 2019/ 0110.1722.227.15 partidaren (energia eta klima-aldaketa) 12.000,00 eurokoa. Konprometitutako gastua dela eta, bi partidak 2020ko aurrekontuan sar daitezke soberakinen bidez.

Diru-laguntzaren zenbatekoa aurrezki garbi orokor positiboaren emaitzan oinarrituko da (haren ehuneko 50). Ikastetxe bakoitzak 2.000,00 euroko diru-laguntza jasoko du gehienez ere.

Aurrezki garbi orokorraren ehuneko 50 ikastetxeen instalazioetan hobekuntzak egiteko erabiliko da, betiere energia-eraginkortasuna hobetze aldera. Eskumeneko udal-zerbitzuek egingo dituzte hobekuntza horiek.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira ekimen bera gauzatzeko jaso daitezkeen beste batzuekin. Hala ere, diru-laguntzaren eskaeran, ekimen honetarako eskatutako, aurreikusitako eta jasotako diru-laguntza guztien zerrenda gehituko da. Helburu berarekin beste diru-laguntza bat edo batzuk jaso izanak oinarri hauetan aurreikusten den diru-laguntza doitzea ekar dezake, gehiegizko finantzaketa saiheste aldera.

Diru-laguntzen deialdi hau puntuaziorik handiena lortzen duenarentzat izango da. Lehenik eta behin, proiektuak ebaluatuko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera; puntuaziorik handiena lortzen duten hiru ikastetxeak aukeratuko dira, diru-laguntza emateko.

#### **8. Eskaera egiteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak**

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, eta epea deialdia ALHAOan argitaratzen den egunaren hurrengo egunean hasiko da.

Laguntza-eskaerak Gasteizko Udalaren Erregistroan edo herritarren arretarako udal-bulegoetan aurkeztuko dira.

Ondoko dokumentu hauek aurkeztuko dira:

– Eskaera. Ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztu behar du, udal eskaera-eredu orokorraren arabera. I. eranskina.

– Eskabidea sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza-ahalordearen akreditazioa eta NANaren fotokopia.

– Proiektua ebaluatzeko, informazio hau eman behar du (II eranskina), behintzat:

1. Aurreko ikasturtean programan parte hartu duten ikastetxeak:

– 2018-2019 ikasturteko programaren emaitzen oroitidazkia.

– Proiektuan jarraitzeko erabakia justifikatzeko argudioen aurkezpen laburra.

– Ikastetxeak libreki hautatutako xedeetarako jasotako dirulaguntzarekin finantzatu nahi dituen ingurumen-hezkuntzaren arloko eta bestelako jardueren proposamena.

2. Programan lehenengo aldiz parte hartzen duten ikastetxeak:

– Ikastetxeak Eskolako Agenda 21ean izandako parte-hartzea.

– Ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopurua.

– Ingurumen-hezkuntzako jardueren eta ikastetxeak aukeratutako helburuetarako jasotako diru-laguntzarekin finantzatu nahi dituen beste jarduera batzuen proposamena.

– Ekitaldi honetako diru-laguntzaren xede den jarduera bererako administrazioei eta erakunde publiko eta pribatuei eskatutako diru-laguntzen aitorpena. III eranskina.

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3. artikuluetan jasotako egoeretako batean ere ez daudela adierazten duen erantzukizunpeko aitorpena. IV. eranskina.

Dena delako erakundeak administrazio honekiko zerga-betebeharrak beteak dituela egiaztatzen duen agiria eskatuko dio Gasteizko Udalak Kontu-hartzaitza Nagusiari.

Aurkeztutako eskabideen gaineko ebazpena ahalik eta egokiena izan dadin, beste agiriren bat ere eskatu ahal izango du Gasteizko Udalak.

Diru-laguntza lortzen duten ikastetxeek atxikipeneko dokumentua/akordioa sinatu beharko dute Udalarekin.

Deialdia eta eranskinak Gasteizko Udalaren webgunean egongo dira interesa dutenen eskura.

### **9. Aurkeztutako agirietako akatsak zuzentzea**

Eskabideak oinarri hauetan xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio interesa duen erakunde edo pertsonari, 10 eguneko epean hutsak zuzendu ditzan (epe hori ezin izango dela inolaz ere luzatu ohartarazita). Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

### **10. Ebaluazio-organoa**

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko organoa osatutako da, eta kide hauek izango dira bertan:

a) Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria edo hark ordezkotzat izendatzen duen pertsona. Lehendakaria izango da.

b) Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaria edo hark ordezkotzat izendatzen duen pertsona.

c) Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko teknikari bat.

Ebaluazio-organoak egingo du ebazpen-proposamena, oinarri hauetan adierazitako irizpideei jarraituz.

### **11. Diru-laguntzak emateko irizpideak**

Ondoren azaltzen diren irizpideak hartuko dira aintzat eskatutako diru-laguntzei lehentasuna, baietza edo ezetza emateko; gutxienez, 50 puntu lortu beharko dira halakorik eskuratzeko:

1. Aurreko ikasturtean programan parte hartu duten ikastetxeak:

– 2018-2019 ikasturteko programaren emaitzen oroitidazkia: 60 puntu gehienez.

– Projektuan jarraitzeko erabakia justifikatzeko argudioen aurkezpen laburra: 20 puntu gehienez.

– Ikastetxeak libreki hautatutako xedeetarako jasotako dirulaguntzarekin finantzatu nahi dituen ingurumen-hezkuntzaren arloko eta bestelako jardueren proposamena: 20 puntu gehienez.

2. Programan lehenengo aldiz parte hartzen duten ikastetxeak:

– Ikastetxeak Eskolako Agenda 21 programan 2019-2020 ikasturtean parte hartzea: 10 puntu.

– Ikastetxearen eraikinaren antzintasuna: 10 puntu gehienez.

– 40 urte baino gehiagokoa: 10 puntu.

– 10 urtetik 40 urtera bitartekoa: 5 puntu.

– 10 urte baino gutxiagokoa: 0 puntu.

– Ikastetxean 2019-2020 ikasturtean Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua: 20 puntu gehienez.

– 0 eta 300 ikasle bitartean: 10 puntu.

– 300 ikasle baino gehiago: 20 puntu.

– Proiektuan parte hartzea justifikatzeko argudioen aurkezpen laburra (500 hitz gehienez): 30 puntu gehienez.

– Ikastetxeak libreki hautatutako xedeetarako jasotako dirulaguntzarekin finantzatu nahi dituen jardueren proposamena: 30 puntu gehienez.

Proiektuan lehenago parte hartu duten ikastetxeen kasuan, 50 puntu baino gehiagoko puntuazioa lortzen duten ikastetxeak aukeratuko dira programan jarraitzeko. Proiektuan sartu berri diren ikastetxeen kasuan, puntuaziorik handiena lortzen duten hiru ikastetxeak aukeratuko dira programan parte hartzeko. 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak ez dira baloratuko, eta baztertu egingo dira.

## 12. Deialdiaren ebazpena

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakariak ebatziko du deialdia, hark baitu deialdia eta oinarriak tramitzatzeko prozedura onesteko eskumena, eta, erabakiaren bidez, administrazio-bidea bukatutzat joko da.

Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zerbitzu teknikoak izango dira prozeduraren organo instrukzio-egileak, Diru-laguntzei buruzko udal-ordenantzaren 10.4 artikuluan aurreikusitako funtzioak betez.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko udal-ordenantzaren 10.8 artikuluan xedatutakoari jarraituz, proposamena egiteko organo eskuduna oinarri hauetan deskribatu den ebaluazio-organoa izango da, eta bertan zehaztutako osaera izango du.

Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazpena ALHAOn argitaratuko da. Eskatzaileei egiten zaizkien ebazpenen jakinarazpenetan horien kontra aurkez daitezkeen errekurtsoak jasoko dira.

Gasteizko Udalak jakinaraziko die erakunde eskatzaileei diru-laguntza eman edo ukatu zaien, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak onetsi eta 10 egun naturaleko epean.

Erabakia hartzeko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, laguntza-eskabideak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Ebazpen horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik aurrera, edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik aurrera.

Berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Aukeratutako ikastetxeren batek diru-laguntzari uko eginez gero, diru-laguntzak eman dituen organoak dokumentazioaren balorazioan hurrengo puntuaziorik handiena lortu duen ikastetxeari eman ahal izango dio diru-laguntza jasotzeko aukera.

### **13. Diru-laguntza ordaintzea**

Diru-laguntza aurrezki garbi orokorra kalkulatu ondoren ordainduko da, eta ikastetxe onuradunek eskabidean aurkeztutako jarduera-proposamenean deskribatutako jardueretarako erabiliko da. Ikastetxeek urtebeteko epea izango dute jarduerak egiteko eta Gasteizko Udalari egin dituztela egiaztatzeko. Baldintza hori bete ez duen ikastetxeak jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko ditu.

Ezingo da diru-laguntza ordaindu, harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izan arte, ezta zorduna bada ere (dirua itzultzea bidezkotzat jo duen ebazpenaren ondorioz).

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da diruz-lagundutako proiektua egin ondoren, behin aurrezki garbi osoaren kalkulua egindako eta txosten tekniko egokiak tramitatutakoaren errealizazioaren ondoren.

### **14. Gastuak justifikatzea**

Ikastetxeek urtebete izango dute diru-laguntzaren xede diren jarduerak egiteko, eta egin dituztela justifikatu beharko dute. Baldintza hori bete ez duen ikastetxeak jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli beharko du.

Diru-laguntzaren onuradunek justifikazioko kontua aurkeztu beharko dute, diruz lagundutako programa amaitzen denetik hiru hilabeteko epean, eta honakoak jaso beharko dira bertan:

- a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren baitan burututako jardueren oroitidazkia.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen oroitidazki ekonomikoa.
- c) Egindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zehaztasun hauekin: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze eta ordaintze data.
- d) Aurreko zerrendan sartutako fakturak
- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrerara edo diru-laguntzen zerrenda (halakorik bada), zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.

### **15. Erakunde onuradunaren betebeharrak**

— Oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta arauak onartzea. Ildo horretan, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso duten egunetik zenbatzen hasita, hamabost eguneko epean erakunde edo pertsona onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egiten duela ulertuko da.

— Finantzatutako jarduera burutzea eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, diru-laguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala.

— Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea.

— Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu nazional nahiz nazioartekoren baten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerara edo baliabiderik jasoz gero, Gasteizko

Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

– Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari.

– Argi eta garbi adieraztea Gasteizko Udalaren diru-laguntza jaso dela (jarraibide teknikoak aintzat harturik eta ematen zaion logotipoa baliatuz) sortzen diren material guztietan: dokumentazioa; jardueraren web-orria, halakorik izanez gero; laguntzaren ondoriozko prestakuntza-, informazio-, sustapen- eta publizitate-material oro, euskarria edozein dela ere; aurkezpen, ospakizun eta ekitaldietan, besteak beste.

– Material horiek herritar orori zuzenduak badira, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira. Halaber, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat baldin bada, hots, ikuskizun edo ekitaldi publiko bat antolatzen bada, bi hizkuntza ofizialetan eman beharko da horren berri.

## 16. Dirua itzultzea

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzaren —2005eko ekainaren 17ko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13an ALHAOn (5 zk.) argitaratu— xedatutakoaren arabera, entitate edo pertsona onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-kopuruak, baldin eta:

a) Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatuz eskuratu bada diru-laguntza.

b) Xedea, jarduera edo proiektua osorik edo partzialki betetzen ez bada, edo diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabideari jarraitzen ez bazaio.

c) Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta oinarri hauetan xedatutakoaren ildotik.

d) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. atalean eta oinarri hauetako 43. atalean jasota dagoenaren arabera egin beharreko zabalkundea ez egitea.

e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan finantzak aztertu eta kontrolatzeko aurreikusitako ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, oztopatu nahiz uko egin bazaie, edo kontabilitatearen, erregistroaren edo agiriak gordetzeko obligazioaren alorrean bete beharrekoak bete ez badira, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturengandik —dela estatukoa, dela Europar Batasunekoa— edo nazioarteko erakunderen batengandik.

f) Gasteizko Udalak erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean euren gain hartutako konpromisoak bete ez badituzte ere, diru-laguntza ematerakoan oinarritzat hartu ziren helburuak lortzeko moduari, jarduera bideratzeko moduari, proiektua gauzatzeko moduari edo bereganatu beharreko jokabideari dagokionez.

g) Gasteizko Udalak erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean euren gain hartutako aurrekoen bestelako konpromisoak bete ez badituzte ere, eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk —dela Estatukoa, dela Europar

Batasuneko— edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

h) Europar Batasuneko Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartekoetan xedatutakoaren ildotik itzultzeko beharra dakarren erabakia hartzen bada.

i) Oinarri hauetan, aipatutako diru-laguntzen ordenantzan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta lege horren araudian (uztailaren 21eko 887/2006 Errege-dekretua) zehaztutako egoerak badira.

Erakunde zein pertsona onuradunak edo, kasua denean, erakunde laguntzaileak hartutako konpromisoak ia osotasunean bete dituztenean eta konpromiso horiek asebetetzeko egoki jardun duela egiaztatzen denean, proportzionaltasunaren printzipioaren aplikazioak zehaztuko du itzuli beharreko zenbatekoa.

Halaber, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 19. artikuluko 3. atalean adierazitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gaintzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion berandutze-interesak eskatu ahal izango dira.

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora egokituko da diru-laguntza itzularazteko prozedura.

#### **17. Arau-hausteak eta zigorrak**

Arau-hauste eta zigorren erregimenak Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan xedatutakoari jarraituko dio.

#### **18. Legedi aplikagarria**

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal-ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 17an

*Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren presidentea*  
**IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ**



## I. eranskina

### GASTEIZKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ENERGIA ETA EDATEKO URA AURREZTEA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

#### ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DEL/LA SOLICITANTE

Izen-abizenak / Enpresaren izena -Nombre y apellidos / Razón social NAN/IFZ/AIZ - IFZ/NIF/NIE

--	--

#### ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK - DATOS DEL REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Lehen deitura - Primer apellido Bigarren deitura - Segundo apellido Izena / Enpresaren izena - Nombre / Razón Social

--	--	--

NAN/AIZ - DNI/ NIE Posta elektronikoa - Correo electrónico

--	--

Helbidea (kalea, ataria, eskailera, solairua eta atea) - Dirección (calle, nº, escalera, piso y letra)

--	--

PK - C.P. Udalerria - Localidad Lurraldea - Provincia Tel. - Tfno.

--	--	--	--

#### ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Finantza-erakundea IBAN F. E. kodea Bulegoa K.Z. Kontu-zenbakia  
Entidad financiera Código E.F. Sucursal D.C. Número de cuenta

--	--	--	--	--	--

LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DU ALOR HONETAN : SOLICITA AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE:

--	--

Gazteria	<input type="checkbox"/>	Kirola	<input type="checkbox"/>	Abenturadun	<input type="checkbox"/>	Deporte	<input type="checkbox"/>
Berdintasuna	<input type="checkbox"/>	Gizarte Politikak	<input type="checkbox"/>	Errealitatea	<input type="checkbox"/>	Políticas Sociales	<input type="checkbox"/>
Garapenerako Laguntza	<input type="checkbox"/>	Herritarren Partaidetza	<input type="checkbox"/>	Cooperación al desarrollo	<input type="checkbox"/>	Participación Ciudadana	<input type="checkbox"/>
Euskara	<input type="checkbox"/>	Merkataritza - Ostalaritza	<input type="checkbox"/>	Enpresak	<input type="checkbox"/>	Comercio - Hosteleria	<input type="checkbox"/>
Bizikidetzaren eta aniztasuna	<input type="checkbox"/>	Enpresak	<input type="checkbox"/>	Convivencia y Diversidad	<input type="checkbox"/>	Empresas	<input type="checkbox"/>
Kultura	<input type="checkbox"/>	Enplegua - Kontratazioa	<input type="checkbox"/>	Kultura	<input type="checkbox"/>	Empleo - Contratación	<input type="checkbox"/>
Hezkuntza	<input type="checkbox"/>	Nekazaritza Eremua	<input type="checkbox"/>	Educación	<input type="checkbox"/>	Zona Rural	<input type="checkbox"/>
		Ingurugiro Gaietarako Ikastegia				Centro de Estudios Ambientales	<input type="checkbox"/>

DIRU-LAGUNTZEN ILDO HONEN BARRUAN / CORRESPONDIENTEA LA LINEA DE SUBVENCIÓN DE:

--

<b>BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU:</b>	<b>DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:</b>
<i>Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko udal-programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela..</i>	<i>Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.</i>
<i>Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.</i>	<i>Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.</i>
<b>GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO</b>	<b>AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ</b>
<i>Konkurrentziatik eratorritako jakinarazpen ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.</i>	<i>Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.</i>
<i>Adierazi hemen <input type="checkbox"/></i>	<i>Marque aquí <input type="checkbox"/></i>
<i>Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatzeko.</i>	<i>Solicitar de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.</i>
<i>Adierazi hemen <input type="checkbox"/></i>	<i>Marque aquí <input type="checkbox"/></i>
<i>Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.</i>	<i>Solicitar de oficio los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.</i>
<i>Adierazi hemen <input type="checkbox"/></i>	<i>Marque aquí <input type="checkbox"/></i>
<i>Baimen horiek UKATUZ gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.</i>	<i>En caso de DENEGAR estas autorizaciones, deberá presentar los certificados acreditativos de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social junto con esta Solicitud.</i>
<i>Adierazi hemen <input type="checkbox"/></i>	<i>Marque aquí <input type="checkbox"/></i>
<i>Sinadura / Firma:</i>	

## II. eranskina

### Diruz lagundu beharreko proiektuaren eskema

#### Agiriak

1. Aurreko ikasturtean programan parte hartu duten ikastetxeak:
  - 2018-2019 ikasturteko programaren emaitzen oroitidazkia: 60 puntu gehienez.
  - Proiektuan jarraitzeko erabakia justifikatzeko argudioen aurkezpen laburra.
  - Ikastetxeak libreki hautatutako xedeetarako jasotako dirulaguntzarekin finantzatu nahi dituen ingurumen-hezkuntzaren arloko eta bestelako jardueren proposamena.
2. Programan lehenengo aldiz parte hartzen duten ikastetxeak:
  - Ikastetxeak Eskolako Agenda 21 programan 2019-2020 ikasturtean parte hartzea.
  - Ikastetxearen eraikinaren antzintasuna
  - Ikastetxean 2019-2020 ikasturtean Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua.
  - Proiektuan parte hartzea justifikatzeko argudioen aurkezpen laburra (500 hitz gehienez).
  - Ikastetxeak libreki hautatutako xedeetarako jasotako dirulaguntzarekin finantzatu nahi dituen jardueren proposamena.

### III. eranskina.

#### Erantzukizunpeko aitorpena

##### Eskatzailearen datuak

Izen-  
deiturak \_\_\_\_\_  
NAN \_\_\_\_\_ Kargua \_\_\_\_\_  
IFZ \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
PK \_\_\_\_\_ Udalerria \_\_\_\_\_  
Probintzia \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_  
Mugikorra \_\_\_\_\_ e-posta \_\_\_\_\_

#### AITORTZEN DU

Ekitaldi honetako diru-laguntzaren xede den jarduera bererako administrazioei eta erakunde publiko eta pribatuei eskatutako diru-laguntzak hauek direla:

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Gasteizen, (e)ko \_\_\_\_\_ aren (e)an.

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

## IV. eranskina.

### Erantzukizunpeko aitortpena

#### Eskatzailearen datuak

Izen-  
deiturak \_\_\_\_\_

NAN \_\_\_\_\_ Kargua \_\_\_\_\_

IFZ \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_

PK \_\_\_\_\_ Udalerria \_\_\_\_\_

Probintzia \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Mugikorra \_\_\_\_\_ e-posta \_\_\_\_\_

#### AITORTZEN DU

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotako egoeretako batean ere ez dagoela.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Gasteizen, (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an.

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)